



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

1169/2011 (EB) ARAUDIA, ELIKAGAIEN INGURUAN KONTSUMITZAILEEI EMATEN ZAIEN INFORMAZIOARI BURUZKOA

Xedea eta aplikazio eremua

Araudi honek oinarria ezartzen du, elikagaien informazioari dagokionez, kontsumitzaileen babes-maila altua bermatzeko. Horretarako, aintzat hartuta dira kontsumitzaileen pertzepzioan dauden aldeak eta informazio-beharrak.

Printzipio nagusiak ezartzen ditu, bai eta elikagaien informazioa arautzen duten betekizunak eta erantzukizunak ere; bereziki, elikagaien etiketatua.

Elikagai-enpresetako eragileei aplikatuko zaie elikakateko fase guztietan, baldin eta euren jarduerak zerkusua badu kontsumitzaileei ematen zien informazioarekin. Azken kontsumitzailearentzat diren elikagai guztiei aplikatuko zaie, bai eta taldeek banatutakoei eta taldeen hornidurarako direnei ere.

Derrigorrezko elikagai-informazio arautzen duten printzipioak

Elikagaien legediak derrigorrezko informazioa eskatzen badu, honako honi buruzkoa izango da:

- a) Elikagaien identitateari, osaerari, propietateei edo beste ezaugarri batzuei buruzko informazioa.
- b) Kontsumitzaileen babesari eta elikagaien erabilera seguruari buruzko informazioa; bereziki, honako hauei buruzkoa:
 - Kontsumitzaile talde jakin batzuen osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen osaerarekin zerikusia duten propietateak.
 - Iraupena, biltegitratzea eta erabilera segurua.
 - Osasunaren gainerako eraginak, bai eta elikagai bat kontsumitzeak dituen arriskuak eta ondorio kaltegarriak ere.
- c) Nutrizio ezaugarriei buruzko informazioa, kontsumitzaileek, bai eta behar dietetiko bereziak dituztenek ere, euren erabakiak jakinaren gainean har ditzaten.

Derrigorrezko elikagai-informazioa

Derrigorrezko aipamenen zerrenda

Honako aipamen hauek derrigorrean adierazi behar dira:

- a) **elikagaiaren izena**
- b) **osagaien zerrenda**
- c) **alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten substantzien edo produktuen zerrendako (II. eranskina) edozein osagai edo laguntzaile teknologiko, baldin eta elikagai bat egiteko erabili eta azken produktuan presente badago, eraldatua bada ere**
- d) **zenbait osagaien edo osagai-kategoriaren kopurua**
- e) **elikagaiaren kopuru garbia**
- f) **gutxieneko iraupen-data edo iraungitze-data**
- g) **kontserbatzeko eta/edo erabiltzeko baldintza bereziak**
- h) **elikagai-enpresako eragilearen izena edo enpresaren izena eta helbidea**

- i) jatorriko herrialdea edo jatorria
- j) erabiltzeko modua; baldin eta informazio hori eman ezean, zaila bada produktua egoki erabiltzea
- k) alkoholaren bolumena % 1,2 baino handiagoa duten edarietan, bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa adieraziko da
- l) **nutrizio-informazioa**

Aipamen horiek guztiak hitzen eta zenbakien bidez egingo dira. Araudi honen (35. artikulua) betekizunekin bat, piktogramen eta sinboloen bidez ere adierazi ahal izango dira.

Gainera, derrigorrezko aipamen gehigarriak ezarri dira berariazko elikagai-kategorientzat edo motentzat (III. eranskina).

Derrigorrezko elikagai-informazioaren eskuragarritasuna eta kokalekua

3

Elikagai guztientzat, derrigorrezko elikagai-informazioa eskuragarri eta erraz ikusteko lekuan egongo da.

Ontziratutako elikagaiei dagokienez, derrigorrezko elikagai-informazioa ontzian bertan edo ontziari itsatsitako etiketa batean jarriko da.

Batzordeak aintzat hartu beharko ditu maila ertaineko kontsumitzaileen ulergarritasuna adierazten duten probak eta kontsumitzaileek baliabide horiek nola erabiltzen dituzten. Horrela, irizpideak ezari ahal izango ditu, derrigorrezko zenbait aipamen ontzitik edo etiketatutik kanpo egiteko.

Derrigorrezko aipamenen aurkezpena

Derrigorrezko elikagai-informazioa leku nabarmenean jarriko da, ikusgarria, irakurgarria eta ezabaezina izateko moduan.

Derrigorrezko aipamenak ontzian edo etiketan inprimatuko dira, erraz irakurtzeko moduan. Horretarako, x **hizkiaren tamaina 1,2 mm**-koa edo handiagoa izango da.

Gehienezko azalera 80 cm²-koa baino txikiagoa duten ontziei dagokienez, hizkien tamaina gutxienez **0,9 mm**-koa izango da.

Elikagaiaren izena, kopuru garbia eta bereganatutako alkohol gradu bolumetrikoa ikus-eremu berean jarriko dira.

Urruneko salmenta

Urrutiko salmentarako elikagai ontziratuen kasuan:

- a) Derrigorrezko informazioa (gutxieneko iraupen-data edo iraungitze-data izan ezik) eresketa egin aurretik egongo da eskuragai. Gainera, urrutiko salmentaren euskarrian adieraziko dira edo bide egokiak erabiliko dira informazio hori emateko. Elikagai-enpresen eragileak argi zehaztu beharko du zein diren bide horiek.
- b) Derrigorrezko aipamen guztiak eskuragarri egongo dira produktua emateko orduan.

Elikagaiaren izena ez zaie aplikatuko makina automatikoen edo merkataritza-instalazio automatizatuen bidez saltzeko diren elikagai.

Hizkuntza betekizunak

Derrigorrezko elikagai-informazioa emateko erabiltzen den hizkuntza erraz ulertu beharko dute elikagai hori merkaturatuko den estatu kideko kontsumitzaileek.

Estatu kideek erabaki ahal izango dute euren lurraldeetan aipamen horiek Europar Batasuneko hizkuntza ofizial batean edo gehiagotan eman behar ote diren.

Derrigorrezko hainbat aipamen ez egitea

Berriz erabiltzekoak diren, ez ezabatzeko moduan markatuta dauden eta etiketarik, xingolarik edo lepokorik ez duten **beirazko botilei** dagokienez, honako datu hauek baino ez dira nahitaez eman behar: **elikagaiaren izena, alergiak edo intolerantziak eragiten dituen osagaia edo laguntzaile teknologikoa, kopuru garbia, gutxieneko iraupen-data edo iraungitze-data eta nutrizio-informazioa.**

Gehienezko azalera 10 cm² baino txikiagoa duten ontzietan dagokienez, etiketan edo ontzian honako datu hauek baino ez dira eman behar: **elikagaiaren izena, alergiak edo intolerantziak eragiten dituen osagaia edo laguntzaile teknologikoa, kopuru garbia, eta gutxieneko iraupen-data edo iraungitze-data.** Osagaien zerrenda beste modu batera emango da edo kontsumitzaileen eskura egongo da, hala eskatzen badute.

Nutrizio-informazioa ez da derrigorrean eman beharko V. eranskinetako elikagaien kasuan.

Alkohol gradu bolümetrikoa % 1,2 baino handiagoa duten edarrietan dagokienez, aipamen hauek ez dira derrigorrezkoak: osagaien zerrenda eta nutrizio-informazioa.

Derrigorrezko aipamenen arau xehatuak

Elikagaiaren izena

Elikagaien izena izen juridikoa izango da. Horrelakorik ez badu, izena ohikoa izango da, eta, halakorik ez badago, elikagaiaren izen deskriptiboa emango da.

Elikagai bat ekoizten den estatu kidean elikagaia izen batekin fabrikatzen edo merkaturatzen da, eta elikagaia merkaturatzen den estatu kidean onartu egingo da izen hori bera erabiltzea. Izen horrek ez badu argi erakusten zein elikagai den eta ez badu uzten beste elikagaietatik bereizten, izenari beste deskripzio-datu batzuk gehitu beharko zaizkio.

Elikagaiaren izenaren orde ez da erabiliko beste izen babesturik (jabetza intelektuala, marka komertziala edo fantasiako izena).

Berriazko xedapenak ezarri dira elikagaien izenari eta izenari gehitu behar zaizkion aipamenei buruz.

Osagaien zerrenda

“**Osagaiak**” hitza eramango duen titulu egokia izango da osagaien zerrendaren idazpurua. Osagaien zerrendan osagai guztiak agertu beharko dira pisu gehien dutenetik hasi eta gutxien dutenak aipatu arte; horretarako, elikagaia ekoiztean erabiltzen diren osagaiak eta berorien pisuak hartuko dira kontuan.

Nanomaterial artifizialetan presente dauden osagai guztiak agertu beharko dira osagaien zerrendan. Osagai horien izenaren ondoan “**nano**” hitza jarri beharko da parentesi artean.

Aurreko paragrafoak aplikatzeko arau teknikoak xedatzen dira (VII. eranskina).

Osagaien zerrenda ez ematea

Honako hauei ez zaie eskatuko osagai-zerrenda izatea:

- a) fruta eta barazki freskoak, bai eta patatak ere, baldin eta zuritu edo moztu ez badira edo antzeko tratamendurik izan ez badute
- b) ur karbonikoak
- c) hartidura-ozpinak, jatorria oinarrizko produktua baldin bada
- d) gazta, gurin, esne eta esnegain hartituak; horiek ekoizteko beharrezkoak diren esnekiez, entzimez eta mikroorganismoez gain, bestelako osagairik erantsi ez zaienak
- e) osagai bakarreko elikagaiak

Alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten substantzia edo produktuen etiketatua

Horiek osagaien zerrendan adieraziko dira. Substantziaren edo produktuaren izena jarri beharko da (II. eranskina).

Substantziaren izena zerrendako gainerako osagaietatik bereiziko da argi eta garbi, eta horretarako osaera tipografiko berezia erabiliko da.

Osagaien zerrendarik ez badago, honela adieraziko da: substantziaren izena eta "dauka".

Osagaien kopurua adieraztea

Honako kasu hauetan adierazi beharko da osagai baten kopurua:

- Elikagaiaren izenean ageri bada.
- Etiketatuan nabarmendu egiten bada.
- Elikagaia definitzeko eta antzekoak diren beste produktu batzuetatik bereizteko ezinbestekoa bada.

Kopuru garbia

Kasua zein den, unitate hauek erabiliko dira kopuru garbia adierazteko: litroa, zentilitroa, mililitroa, kilogramoa edo gramo.

Aurreko paragrafoa ezartzeko arau teknikoak xedatzen dira (IX. eranskina).

7

Gutxieneko iraupen-data, iraungitze-data eta izozte-data.

Mikrobiologikoki oso erraz galtzen diren elikagaien kasuan, "gutxieneko iraupen-data" zehaztu beharrean, "iraungitze-data" zehaztu beharko da. Data hori igaro ostean, elikagaia ez da segurua izango.

X. eranskinak datak adierazteko modu egokiak biltzen ditu.

Kontserbatzeko edo erabiltzeko baldintzak

Elikagaiak kontserbatzeko eta/edo erabiltzeko baldintza bereziak behar badira, horiek adierazi egin beharko dira.

Adierazi egin beharko da, halaber, ontzia ireki ostean kontsumitzeko baldintzak eta/edo data-muga.

Jatorrizko herrialdea edo jatorria

Jatorria ezinbestean adierazi beharko da honako kasu hauetan:

- a) Informazio hori agertu ezean, erosleari okerren bat eragiten badio.
- b) "NC" nomenklatura konbinatuko kodeetako haragia bada (XI. eranskina).

Jatorrizko herrialde aipatzen bada eta herrialde hori ez bada osagai nagusiaren herrialde bera:

- c) Osagai nagusiaren jatorrizko herrialdea adieraziko da.
- d) Aipatu egin beharko da elikagaiaren jatorrizko herrialdea ez dela osagai nagusiaren herrialde berbera.

NUTRIZIO INFORMAZIOA

Edukia

Derrigorrezko nutrizio-informazioak honako hauek hartzen ditu bere baitan:

- a) **balio energetikoa eta**
- b) **koipe, gantz-azido saturatu, karbohidrato, azukre, proteina eta gatz kopurua**

Hala dagokionean, nutrizio-informazioaren ondoan adierazi ahal izango da gatz kopurua elikagaien modu naturalean dagoen sodioari baino ez dagokiola.

Nutrizio-informazioaren edukian honako substantzia hauetako baten edo gehiagoren kopurua ere adierazi ahal izango da:

- a) gantz-azido monoinsaturatuak
- b) gantz-azido poliinsaturatuak

- c) polialkoholak
- d) almidoia
- e) elikagai-zuntza
- f) bitaminak edo mineralak

100 g-ko edo 100 ml-ko adierazpenak

Balio energetikoa edo nutrienteen kopurua 100 gramotan edo 100 mililitrotan adierazten da.

Bitaminei edo mineralei buruzko informazioa ematen bada, erreferentziatzko ingesten portzentajea adieraziko da.

Egoki bada, honako adierazpen hau gehitu beharko da: "maila ertaineko heldu baten erreferentziatzko ingesta: 8400kJ/ 2000 kcal".

9

Kontsumo anoaren edo unitatearen adierazpena

Balio energetikoa eta nutrienteen kopuruak kontsumo anoaren edo unitatearen bidez adierazi ahalko dira, kontsumitzaileak erraz identifikatu ahal duen moduan, baldin eta anoa edo unitatearen kopurua etiketan agertzen bada eta ontziak duen anoa kopurua adierazten bada, 100 g-ko edo 100 ml-ko adierazpenaz gain.

Erabiltzen den anoa edo unitatea nutrizio-informazioaren ondoan agertuko da.

Aurkezpena

Aipatutako aipamenak ikus-eremu berean jarriko dira.

Nahiko leku badago, aipamenak taula baten bidez adieraziko dira, zenbakiak zutabetan. Lekurik ez badago, lerroen formatua erabiliko da informazioa emateko.

Balio energetikoa edo nutrienteen kopuru oso-oso txikia bada, elementu horiei buruzko informazioaren ordeztu mota honetako adierazpenen bat jar daiteke: "...-en kopuru atxikia du" Adierazpen hori nutrizio-informazioaren ondoan jarriko da, halakorik badago.

Adierazpenak egin eta aurkezteko modu osagarriak:

Balio energetikoa eta nutrienteen kopurua adierazteko eta/edo aurkezteko beste modu batzuk erabil daitezke. Adibidez, testuez eta zenbakiez gain, sinbolo grafikoak ere erabili ahal izango dira, baldin eta:

- a) Zientzia aldetik zorrotzak eta baliagarriak diren azterlanetan (kontsumitzaileen ingurukoak) oinarritzen badira eta iruzurrik eragiten ez badute.
- b) Horien garapena interes talde askori egindako kontsulten emaitza bada.
- c) Kontsumitzaileek hobeto ulertzeko erabiltzen badira.
- d) Adierazpen/aurkezpen modu hori maila ertaineko kontsumitzaileak ulertzen duela egiaztatzen duten zientzia-proba baliagarrietan oinarrituta badaude.
- e) Erreferentziazko ingesta bateratuetan oinarritzen badira.
- f) Objektiboak eta ez diskriminatzaileak badira.
- g) Horiek aplikatzeak ez badu eragozten salgaien joan-etorri askea.

Borondatezko elikagai-informazioa

Aplika daitezkeen betekizunak

Borondatez ematen den elikagai-informazioak honako betekizun hauek bete beharko ditu:

- a) Ez dio okerrik eragingo kontsumitzaileari.
- b) Ez da zalantzazkoa edo nahasgarria izango.
- c) Dagozkion zientzia-datuetan oinarrituko da.

Batzordeak hainbat egintza gauzatuko ditu betekizun horiek borondatezko elikagai-informazio hauetan betearazteko:

- a) Alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten substantzia edo produktuen nahigabeko presentziari buruzko informazioa.
- b) Elikagai bat begetarianoentzat edo beganoentzat egokia izan daitekeela adierazten duen informazioa.
- c) Biztanleen hainbat talderentzako erreferentziako ingestak adierazteko aukera.

Aurkezpena

Ez da borondatezko informaziorik emango, baldin eta informazio horrek derrigorrezko informazioarentzat eskuragarri dagoen lekua hartzen badu.

Nazio mailako neurria

Araudiak beren-beregi bateratutako materiei dagokienez, estatu kideek ezin izango dute hartu eta mantendu nazio mailako neurriak, Batasuneko Zuzenbideak baimentzen ez duen bitartean.

Estatu kideek nazio mailako neurriak hartu ahal izango dituzte beren-beregi bateratu gabeko materiei buruz, baldin eta araudiarekin bat datozen salgaien joan-etorri askea debekatzen, oztopatzen edo mugatzen ez badute.

Derrigorrezko aipamen gehigarri buruzko nazio mailako neurriak

Estatu kideek derrigorrezko aipamen gehigarriak eskatzen dituzten neurriak hartu ahal izango dituzte elikagai mota edo kategoria jakinentzat, gutxienez honako arrazoi bategi justifikatzen badu:

- a) Osasun publikoa babestea.
- b) Kontsumitzailea babestea.
- c) Iruzurrari aurrea hartzea.
- d) Industria- eta merkataritza-jabetza babestea, jatorria edo jatorrizko izendapena adieraztea, eta lehiakortasun desleialari aurrea hartzea.

Nazio mailako neurriak ontziratutako gabeko produktuei dagokienez

Azken kontsumitzaileari edo taldeei elikagaiak ontziratutako gabe saltzen bazaizkie edo elikagaiak saltegietan bertan ontziratzen badira erosleak hala eskatu duela edo berehala saltzeko:

- a) **Derrigorrezkoa izango da honako hauek jakinaraztea: alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten eta elikagaiak egiteko erabiltzen diren osagaiak edo laguntzaile teknologikoak.**

- b) Ez da derrigorrezkoa izango gainerako adierazpenak egitea. Nolanahi ere, nahitaez jakinarazi beharko dira estatu kideek aipamen horiek guztiak edo horietako batzuk edo horien zati bat eskatzen duten nazio mailako neurriak hartzen badituzte.

Noiz sartuko den indarrean eta noiz aplikatuko den

Araudia argitaratu eta hogeigarren egunena jarriko da indarrean.

2014ko abenduaren 13tik aurrera aplikatu ahal izango da. Nolanahi ere, nutrizio-informazioa 2016ko abenduaren 13tik aurrera aplikatuko da, eta VI. eranskinaren B atala 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera.

1169/2011 (EB) Araudia

[1169/2011 \(EB\) Araudia](#)